

Bestelako Euskal Herria posible da

Aurreko astean LAB sindikatuak Nazio Biltzarra egin du eta bertan erabaki du ikasturte honetarako asmoa: "Bestelako Euskal Herria posible da". Aste honetan bertan, hilaren 25ean, hasi dira neurri batzuk aplikatzen Gasteizen egindako manifestazioan. "Aldaketa politiko eta sozialaren alde, marko demokratikoa" izan zen leloa. Honek jarraipena izango du azaroaren 9an Iruñean izango den manifestazioan; hark "aldaketa politiko eta sozialaren alde, geuk erabaki nahi dugu arlo ekonomiko eta sozialean" leloa izango du. Manifestazio horiekin erakutsi nahi dute marko demokratiko berria beharrezkoa dela, baita bestelako balio ekonomiko eta sozialak dituen Euskal Herria ere. Enplegu, ezegonkortasun, ezbehar, aukera berdintasun eta antzeko gai ekonomiko eta sozialetan zazpi lurraldeetako langileek erabakitzea da asmoa. Horrela, euskal gune sozio-ekonomikoa errespetatzea nahi dute, baita lan harremanen marko euskalduna ere. EAJ eta UPNK kudeatzen duten eredu neoliberalarekiko alternatiboa izango den eredu ekonomiko eta sozialaren alde lan egiteko konpromisoa hartu du sindikatuak. Egungo eredu fiskalaren aurkako borroka defendatzen dute, ez delako aberastasunaren banaketarako sistema, ez delako iruzurraren aurka egiten eta administrazioen ustelkeria ahalbidetzen duelako. Hor segitzen dute, argitu gabe, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Ogasunen ustezko iruzurrek. Horiek dira beste edozein euskal sindikatuk, ñabardurak alde batera utzita, bere egin beharko lituzkeen helburuak. Beraz, desiragarria litzateke, behar denerako, sindikatuen batasuna helburu horiekiko.

Juan Mari Arregi

"Mintza", "Le Journal" en astekaria euskaraz

SEI URTE bete ditu Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan argitaratzen den *Le Journal du Pays Basque* egunkariak. Urteurrenarekin batera, urriaren 25ean, kaleratuko dute *Mintza*, zortzi orrialdeko astekaria euskaraz.

Telefonia mugikorra euskaraz

EUSKO JAURLARITZAK eta telefonia mugikorraren esparruko hainbat operadorek –Eroski, Euskaltel, Telefónica, Vodafo-ne eta Yoigo– eta ekoizlek –Alcatel, Nokia, Samsung eta Sony Ericsson– euskara sustatzeko hitzarmena sinatu dute.

Elebila, euskarazko bilatzailea

ELEKA Ingeniaritza Linguistikoa enpresak eta Eusko Jaurlaritzak Elebila (www.elebila.eu) Interneteko euskarazko lehenengo bilatzailea sortu dute. Tresnak euskarazko edukiak bilatzen ditu Euskal Herriko nahiz atzerriko web guneetan.

BAHEA

Nafarroan euskarak duen egoerari buruzko sentsazio dife-rentek:

Patxi Juaristik *El Diario Vascon* esanak: "Liburuak (Miquel Gros i Lladós-en *Recuperación del Euskara en Navarra*) hainbat mito ere apurtzen dizkigu. (...) Liburu honen ondorio garrantzitsuenetarikoa da, nire ustez, Euskararen Legeak Nafarroan ezarri zuen eremuen araberako banaketa ez dato-rrrela bat gaur egungo egoera soziolinguistikorekin (...) Arazoak eta ahultasunak ukatu gabe, euskara aurrera ateratzen ari da Nafarroako eskualdeetan, eta etorkizuna baikorki ikusteko arrazoiak badaude".

German Gorraizek *Diario de Noticiasen* esanak: "Ezin da ukatu epe luzera begira euskararen etorkizuna igartzea ez dela lan makala, baina Satrustegik berak iragarri zuenez euskararen erabilera eta euskararen aldeko sustapenak areago-tzen ez badira, 75 urte barru oroigarri gisa geratuko da, Iparraldean bezala".

Txapela
buruan
ta ibili munduan

Narrika, 18. Donostia
telf. 943428299 www.txapelaburuan.com



Ibarretxeren galdeketa eta Loiolako akordioa

IBARRETXE-ZAPATERO bilerak ez zuen aparteko informazio gehigarri eskaini eta bere funtzio teorikoa bete zuen, lehendakariaren bidai- orriaren etapa bat agortzea. Eszenifikazioaz berba asko egin da eta Zapaterok Ibarretxeri eskainitako tratua berezia azpimarratu da: berdinen arteko tratua nabarmendu da Madrilén eta hemen. Miguel Sanz lehendakariari eskaini ez ziona, alegia, hori ere bereizi gura izan da.

Bigarren urrats garrantzitsua eman da –lehena planaren iragarpenera bera zen– eta galdera nagusienek airean jarraitzen dute. Bat, martxoko hauteskundeak PSOEk irabaziz gero, saiatuko al da nolabaiteko itunik lortzen Ibarretxerekin? Bi, ezezkoan, Jaurlaritzak lortuko al du EHAKren sostengurik Eusko Legebiltzarrean? Hiru, eta hori lortuta, Ibarretxek izango al du Madrilek debekatutako galdeketa aurrera eramateko irimotasunik?

Baina susmo eta zantzu batzuk ere gero eta argiago azalera ari dira: Madrilek itunik bideratzen ez badu, Ibarretxe ez da galdeketa zuzen eta gardenera abiatuko, abertzaleen eremuan konfrontazio demokratikoa ulertu ohi den eskemari hasiera emanez. EAJn ez dago horretarako jarrera argirik eta euskal gizartearen autodeterminazioaren aldeko indarren artean ez dago horrelako egoera batek eskatzen duen indar meta- ketarako baldintzarik eta seguruenik borondaterik ere ez.

Alde horretatik, ELA eta LABekoei ez zaie arrazoirik falta egunerokotasuneko borroka txikiagoetan amore ematen denean, nekez sinetsi daitezkeela bat batean halako urrats handirik emango denik. Hobetuzeko kasua aipatu dute sindikatu abertzaleek, Jaurlaritzak irailean onartu



Jose Luis Rodríguez Zapatero eta Juan Jose Ibarretxe, Moncloan hilaren 16an egin zuten bileran.

baitu erakunde hau INEMeko diruarekin aritzea. ELAk eta LABek Jaurlaritzaren diruarekin finantzatzea eskatu ohi dute eta gero hori Estatuari ordaindu beharreko kupotik kentzea. Sindikatuen proposamena, dena den, ez zen berria, duela hiru urte Ibarretxeren Gobernuak berak, agerpen publiko arranditsuan, eskuratzeko falta ziren 37 eskudentzen transferentzia bideratzeko eskatu zion Madrili, eta egin ezean, bereganatu egingo zituela eta kupotik deskontatu. Ez da horrelakorik gertatu. Mesfidantzak, beraz, badu oinarririk.

GALDEKETARIK EZEAN zer, beraz? Hauteskundearen aurrerapen hutsaren hipotesia dago. Ibarretxek galdeketa plana EAJren programaren lehen lerroan jarri eta herritarren sostengua bilatuko luke. Amets gehiegi halako bidaia motzerako. Bai-ez erantzun behar denean, eta Madrilén EAEko herritarren ordezkari gisa paratuz gero, Ibarretxek bildu lezake abertzalegoaren boto kopuru oso handia, baina hainbat alderdi bozkatu behar diren EAEko hauteskunde soil batzuetan ez, hauei nahi den berezitasuna emanda ere.

EAK, adibidez, mesfidati begiratuko dio Joseba Egibarri, botoa lehendakariaren inguruan bildu behar dela dioenean. Baldin eta aukera,

2001 ean bezala, EAJ-EA berriz biltzea ez bada. Eta aukera honek bai, honek badu sinesgarritasun askoz handiagoa. Legitimoa erabat, baina ez luke zerikusirik Ibarretxek Legebiltzarrean irailaren bukaeran aurkeztutako gidoiarekin.

Gasteizko lehendakariak proiektu honekin hartu duen arriskuaz ere luze egin da berba. Hil ala bizikoa dirudi beretzat. EAJren baitan egin duen apustuak ere halakoa dirudi. Eta baliteke hala izatea. Arriskurako joera bereganatua bide du, baina tarte gehiagorik ere ez du. 2005ean ARGIArako egindako elkarrizketan argi zioen azken aukera zela hau –irekitzearen zegoen prozesuarena–, bestela etxera joango zela eta beste belaunaldi batek hartu beharko lukeela lekukoa.

ETA LOIOLA ZER? Iruzkina hortzetik hortzera dabil: Loiolako lorpenak komunitate behera bota behar al dira? Eremu ez abertzalean bada ahots esanguratsurik pentsatzen duena Ibarretxeren galdeketa oztupo besterik ez dela eta emankorreragoa litzatekeela Loiolako haritik tiratzen jarraitzea, han herri honetako sentsibilitate nagusien arteko akordio printzipio bat lortu zelako. Su-etena hautsita ere tira daitezkeen hari bat bada, bada tira dadila.